

## Egitaraua



### Ekainak 28, asteazkena

**18:30ean** Bezperak elizan Mendi Abesbatzarekin. **20:00etan** txupinazoa, **ondotik** kalejira Doneztebeko txistulariekin eta Elutxa txarangarekin. Herriko elkarte eta ostatuetan zopak. **00:30ean** Bizphiru Pelau taldea Santa Luzia plazan.

### Ekainak 29, ortzeguna

**09:00etan** diana gaiteroekin eta txarangarekin. **11:00etan** meza nagusia, 'Agur Doneztebe, Trapatan eta bandera dantza. Txistulariak, erraldoi eta buruhandiak eta luntxa udaletxe azpian. **17:00etan** haurrentzako tailerrak Santa Luzia plazan Dindaiaren eskutik. **18:30ean** aizkora apustua Bear Zanan: Iker Vicente, Larrañaga, Txikia eta Mugertza. **20:00etan** Doneztebe kantuz eta dantza Santa Luzia plazan. **22:00etan** Erreka Dantza Taldearen ikuskizuna Bear Zanan. **00:30ean** DJ J&J Santa Luzia plazan.

### Ekainak 30, ortziralea

**09:00etan** diana gaiteroekin eta auro-rak. **11:00etan** udal ttikiari ongi etorria eta txupinazoa. **11:30ean** kalejira erraldoiekin eta dantzari ttikien ikuskizuna Bear Zanan, **ondotik** luntxa dantzariantzat. **14:00etan** udal ttiki aukeratzen parte hartu duten haurren bazkaria eta Gazte Burrunbaren bazkaria mozorrotuak (gaia: *far west*). **Ondotik** gazte jokoak. **16:00etatik 19:30era** puzgarriak Bear Zanan, udal ttikiak emanen dio hasiera. **Ondotik** udal ttikiari diploma banaketa eta botere itzulera. **17:30ean** auro-rak eta kuadrillak kalejira eginen dute herrian barna Elutxa txarangarekin. **20:00etan** Kantukolore Santa Luzia plazan. **22:15ean** zezensuzkoa Bear Zanan. **00:30ean** Alaiki Santa Luzia plazan.

## **Uztailak 1, larunbata**

**09:00etan** diana txarangarekin.

**11:00etan** Doneztebeko erraldoien konpartsa eta buruhaundiak, Elizondoko erraldoien parte hartzearekin.

**12:30ean** bertso saioa Santa Luzia plazan: Miren Amuriza, Eneko Lazkoz eta Uxue Alberdi. **16:00etan** mus txapelketa Santa Luzia plazan Gazte Burrunbaren eskutik.

**18:00etan** Hodei magoa eskolako aterpean. **20:00etan** Chuchin Ibañez Santa Luzia plazan.

**22:15ean** zezensuzkoa Bear Zanan.

**00:30ean** Fan&Go Santa Luzia plazan.

## **Uztailak 2, igandea**

**09:00etan** diana gaiteroekin eta gosaria Intzakardin.

**11:00etan** Doneztebeko erraldoien konpartsa. **Goizean** lagunartean bazkaria prestatu musikaz alaiturik (ardo, sagardoa, ura, ogia eta kafea udalaren kontu). Argitsu elkartearen artisau feria herrian.

**14:00etan** herri bazkaria Intzakardin eta kaldereteak. **Ondotik** erreka igoera.

**19:00etan** Muxiko Erromeria Santa Luzia plazan, Jeiki Hadi taldearen eskutik.

**Ondotik** The Malcolm Young Band (AC/DCren tributu taldea) Santa Luzia plazan. **22:15ean** zezensuzkoa Bear Zanan.

**Ondotik** azken kalejira txarangarekin eta Gaixoa Ni.